



**Arartekoaren 2021R-2345-19 Ebazpena, 2021eko otsailaren 11koa. Horren bidez, Bermeoko Udalari gomendatzen zaio ondoriorik gabe utz ditzala trafiko araudiaren bi urraketagatik ezarritako bi zehapen (XXX eta XXX zehapen-prozedurak), bai eta horien betearazpena ere, eta beren-beregi ebatz dezala zehaturiko enpresak egintza horien kontra jarritako errekurtsua, baldin eta, dirudienez, oraindik egin ez badu.**

### Aurrekariak

1. XXX enpresak Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen Bermeoko Udalak jarri zizkion bi zehapen zirela-eta. Zehapen horiek ezarri ziren bere titulartasuneko zen ibilgailua (matrikula: XXX) gidatzen zuen pertsona ez identifikatzeagatik, trafikoko araudia hainbat aldiz urratzeagatik salatua izan zenean (XXX eta XXX zehapen-prozedurak).

Enpresak kexu agertu zuen ez zuelako zehapen horien berri izan, ez eta haiek ezartzeko izapidetutako zehapen-prozeduren berri ere, harik eta bere banketxearen jakinarazpen bat jaso zuen arte, bere kontuan enbargoa egin zaiola jakinarazteko. Era berean, kexa aurkeztu zuen ez zuelako izan egin ziren identifikazio-errekerimenduen berri, ez eta zehapenak betearazteko izapideturiko premiamendu-prozeduren berri ere.

Enpresak adierazi zuen, bestalde, errekerimenduen oinarri izan ziren trafikoko bi arau-hausteez gertaera berari buruzkoak zirela: oinezkoentzako kale batetik zirkulatzea hori debekatzen zuen seinalea errespetatu gabe; trafikoa zaintzeko udal-kamerek grabatu zuten ibilbidearen bi unetan eta ibilgailuaren gidariak jarraitu egin behar izan zuen oinezkoentzako bidetik irteteko.

Kexaren arabera, enpresak, egiaztatu ostean aipaturiko prozeduretan egindako jakinarazpen pertsonalek huts egin zutelako, okerreko helbide batera bidali baitziren (okerreko helbide hori, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren erregistroetan jasota zegoen arren, une horretan ez zen enpresaren helbide soziala), errekurtsua bat aurkeztu zuen zehapenen aurka eta agindutako enbargoaren aurka. Errekurtsuan, enpresak aipaturiko inguruabarraren berri eman zion Udalari eta enbargatu zion zenbatekoa itzultzeko eskatu zion.





Errekurtsoa, antza denez, ez zen beren-beregi ebatzi, aurkeztu zenetik urte eta erdi baino gehiago igaro zen arren, eta denbora horretan enpresa kexagileak Udalari beren-beregi ebazteko eskatu zion arren.

2. Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ondoren, Arartekoak Bermeoko Udalarengana jo zuen azaldutako gaiei buruzko informazioa eskatzeko. Halaber, aipaturiko bi zehapen-prozedurei (XXX eta XXX) eta identifikazio-errekerimenduak eragin zituzten trafikoko arau-hausteei (XXX eta XXX) dagozkien administrazio-espeditenteen kopia bat emateko eskatu zion.

Eskaera horri erantzunez, Udalak erakunde honi jakinarazi zion oinezkoentzako bidea arautzen zuen ordenantzan ibilgailuak gunehorietara sartzeko baldintzak zehazten direla. Era berean, adierazi zuen ez zetozela bat identifikatzeko eskaerak ekarri zituzten trafikoko bi arau-hausteen tokiarekin eta orduarekin (horiek ez betetzearen ondorioz kexan jasotzen diren zehapenak ezarri ziren), ez eta ustez araua hautsi zuen ibilgailua gidatzen zuen pertsona identifikatzeko betebeharra ez betetzea arau-hauste larritzat jotzen duen Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateginarekin ere (11. art.).

Udalak ez du adierazitakoak baino azalpen gehiagorik eman. Era berean, ez zuen informaziorik kexan azalduko gai jakinari buruz, ez eta premiamendu-prozedurari buruz.

3. Udalak Arartekoari eman zizkion zehapen-prozeduretako administrazio-espeditenteek agerian jartzen zituzten erakunde honek kexa aztertzeko garrantzitsutzat jo zituen datu hauek:

-identifikatzeko eskaera ekarri zuten bi trafiko-salaketak 19:36an eta 19:41ean egin ziren 2017ko irailaren 21ean, Arresi kaleko 1. eta 58. zenbakietan hurrenez hurren, arau-hauste berarengatik: *"zirkulazioa debekatzeko seinalea (R-100) betetu barik ibilitzea"*. Salaturiko arau-hausteak oinezkoentzako bidean ibilgailuen zirkulazioa kontrolatzeko bi tokietan dauden kamerek grabatu zituzten.

-enpresari egindako jakinarazpen pertsonalak, une horretan ibilgailua gidatzen zuen pertsonaren identifikazio-eskaerenak, Bilboko XXXan, egin ziren. Baina ezin izan ziren gauzatu, enpresa ezezaguna zelako helbide horretan.





-eskaerak ez zirenez bete, udalak zehapen-prozedurak hasi zituen enpresaren aurka, ibilgailua gidatzen zuen pertsona ez identifikatzeagatik.

-aipaturiko prozedurak hasteko erabakien berri emateko jakinarazpen pertsonalak Bilboko XXXan ere gauzatu ziren, identifikatzeko eskaeren jakinarazpenak egiten ahalegindu zirenean enpresa ezezaguna zen helbide berean. Arrazoi beragatik, hain zuzen ere, ezin izan ziren egin.

-zehapen-ebazpenen berri emateko jakinarazpen pertsonalak XXXan ere jakinarazi zitzaizkion enpresari, identifikatzeko eskaeren eta zehapen-prozedurak hasteko erabakien jakinarazpenak egiten ahalegindu zirenean enpresa ezezaguna zen helbide berean. Arrazoi beragatik, hain zuzen ere, ezin izan ziren egin.

-jakinarazpenak egitea ezinezkoa izan bazen ere, espedientean ez da jasotzen Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zirenik.

-ez dago jasota, era berean, udalak jarduketaren bat egin zuenik enpresaren helbidea jakiteko, jakin zuenean jakinarazpenak huts egin zuela interesduna ez zelako ezagutzen bidali zen helbidean, ez eta hori egitea ezinezkoa zela justifikatu zuenik ere.

4. Aipaturiko datuak ikusita, Arartekoak uste zuen, gogoeten hurrengo epigrafean adierazten diren arrazoiengatik, Udalak kexaren xede ziren zehapenak berrikusi behar zituela, adierazi zizkion parametroen arabera, baldin eta, erakunde honi emandako informaziotik ondorioztatzen zen bezala, identifikazio-errekerimenduen jakinarazpenak eta zehapen-prozeduretan egindakoak ez bazetozen bat aplikatu beharreko lege-araubidearekin, ez eta horren inguruko konstituzio-doktrinarekin ere, eta zehapenak eragin zituen arau-haustea berbera bazen, baina bi unetan jaso.

Arartekoak aipaturiko balorazioa helarazi zion Udalari, adierazitako zentzuan jarduteko prest zegoen edo ez adieraz ziezaion eta baloraziora egokitzeko egindako jardueren (halakorik balego) berri eman ziezaion.

Era berean, erakunde horrek Udalari gogorarazi zion legezko betebeharra zuela enpresa kexagileak zehapenen aurka eta zehapen horiek betearazteko ezarritako enbargoaren aurka jarritako errekurtsioa berariaz ebazteko (Administrazio Publikoen



Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua eta horrekin bat datozenak).

5. Bigarren lankidetzaren eskaera horri erantzuteko, eta ondoren egindako errekerimendu bati erantzuteko, Udalak honako informazio hau eman dio erakunde honi:

-Identifikazio-errekerimenduen eta gainerako jarduketan jakinarazpenak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuz gauzatu ziren, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren erregistroetan agertzen zen enpresaren egoitzan egindako jakinarazpen pertsonalek huts egin baitzuten, helbide horretan enpresa ezezaguna zelako. Udalak Aldizkariko argitaratze-daten berri eman du, baina ez ditu argitalpenak aurkeztu.

-identifikazio-errekerimenduak ez betetzearen ondorioz, ez-betetzat jo ziren, eta ez-betetzeagatik dagozkion zehapen-prozedurak abiarazi ziren. Prozeduren abiarazteko erabakiak eta zehapen-ebazpenak modu berean jakinarazi ziren. Kasu honetan ere, argitaratze-data jakinarazpenen Estatuko Aldizkari Ofizialean jakinarazi da, baina ez dira aurkeztu argitalpenak.

-enpresak ez zituen jakinarazpenak jaso ez zuelako bete Trafikoko Zuzendaritza Nagusiko erregistroei helbide-aldaketaren berri emateko legezko betebeharra.

Identifikazio-errekerimenduen oinarri izan zituzten bi arau-haustek berbera izateari dagokionez, Udalak honako hau adierazi du:

*“Hasiera batean. salatutako arau-haustek bidegabeko bi maniobra izan ziren, Bermeoko Hirigune Historikoko eremu Oinezkoaren sarbideak kontrolatzeko sistemako bi kamerek hartutakoak.*

*Salatutako ibilgailuak, bien artean, gutxienez herriko 4 kale hartzen dituen ibilbidea egin zuen (Arresi kalea 1, Aldatseta kalea, Nardiz tar Jon kalea, eta berriro zirkulatu zuen Arresi kaleko 58. zenbakiaren amaierara arte). Bistan denez, ez da kale beraren sarrera eta irteera, baizik eta ibilbide zabalagoa hainbat kaletatik, askotariko ibilbideak eginez.”*

Udalak ez dio eman erakunde honi enpresa kexagileak aurkeztu zuen errekurtsoren ebazpenari buruzko informaziorik, ez eta premiamendu-prozedurari buruzkoa ere.





## Gogoetak

1. Trafikoko araudiak ibilgailuaren titularra behartzen du egiazki identifikatzera nor gidatzen zuen ibilgailua araudi horren ustezko arau-hauste bat egin dela antzematen den unean. Arau orokorra salbuetsiko litzateke, hala ere, pertsonak Trafiko Zuzendaritza Nagusiko Ibilgailuen Erregistroari ohiko gidaria nor den jakinaraziko balu, eta hori, antza denez, ez zen gertatu kexaren kasuan (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateginaren 11. art.).

Betebehar hori ez betetzea, titularrak ezarritako epean horretarako errekerimendua jaso badu, arau-hauste oso astun gisa tipifikatuta dago [aipaturiko urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 77.j) art.].

2. Ibilgailu baten zirkulazio-baimenaren titularrak, halaber, bizileku-aldaketa jakinarazi beharko dio Ibilgailuen Erregistroari, aldaketa gertatu eta hamabost eguneko epean (Ibilgailuen Araudi Orokorra onartzeko den abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren 30.2 art.).

3. Trafikoko araudiak xedatzen du, bestalde, araudi hori hausteagatiko zehapen-prozedurei buruzko jakinarazpenak Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren erregistroetan agertzen den helbidean egin behar direla, baldin eta salatutako pertsonak ez badu bideko helbide elektronikorik eta ez badu berariaz adierazi beste helbiderik, eta hori gertatu da, antza denez, kexaren kasuan (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 90. art.).

Aplikatu beharreko lege-araubidearekin bat etorritz, prozedura batean interesa duten pertsonak ezezagunak badira, jakinarazpena non egin behar den ezagutzen ez bada edo jakinarazpena egiten saiatu arren ezinezkoa bada, jakinarazpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki baten bidez egin beharko da (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 83. eta 91. artikulua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikuluaekin lotuta).





4. Aurrekarietan adierazi den bezala, Bermeoko Udalak erakunde honi eman dizkion administrazio-espedienteen arabera, enpresa kexagileari bere titulartasuneko ibilgailua gidatzen zuen pertsona identifikatzeko bi errekerimenduak jakinarazteko saiakerak (trafikoko araudia hainbat aldiz urratzeagatik salatua izan zenean) eta errekerimenduak ez betetzeagatik izapideturiko zehapen-prozedurak osatzen dituzten egintzak enpresa kexagileari jakinarazteko saiakerak, Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren erregistroetan agertzen zen enpresaren egoitzan gauzatu ziren, eta une hartan ez zetorren bat enpresaren helbide sozialarekin, eta jakinarazpenek huts egin zuten, enpresa helbide horretan ezezaguna zelako.

Adierazi den bezala, Udalak erakunde honi jakinarazi dio, jakinarazpen pertsonalerako saiakerek huts egin zuten, jakinarazpenak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuz egin zirela, baina ez dituela aurkeztu egindako argitalpenak, eta horiek ez direla jasotzen bidali dizkigun zehapen-prozeduren administrazio-espedienteetan.

Zehaztu behar da Udalak Arartekoari jakinarazi zionean jakinarazpenak zer egunetan argitaratu ziren, horiek ez zirela jada sarbide publikokoak, eta, beraz, erakunde honek ezin izan duela bide horren bidez egiaztatu adierazitako legeko eskakizuna betetzen zela, eta ezin izan du ezagutu argitaratutako jakinarazpenen edukia.

Gure ustez, eskakizun hori betetzen dela egiaztatzen ez bada, ezin dira behar bezala gauzatu jo enpresa kexagileari egindako identifikazio-errekerimenduen jakinarazpenak, ez eta errekerimenduak ez betetzeagatik izapidetutako zehapen-prozeduretako ekintzen jakinarazpenak ere.

Ondoren arrazoituko den bezala, erakunde honen ustez, gainera, egindako jakinarazpenak ere ez ziren egokitu horri buruzko konstituzio-jurisprudentziara.

5. Konstituzio Auzitegiaren doktrina finkatuaren arabera, Espainiako Konstituzioaren 24.2. artikuluan ezarritako prozedura-bermeak aplika daitezke administrazioaren zehatzeko ahala baliatzeko orduan. Auzitegi horrek adierazi du prozedura-bermeak (interesdunak akusazioaren berri izateko eskubidea eta defentsa-eskubidea, besteak beste) dakartela interesdunari dei egitea, edo behar bezala jakinaraztea prozedura abiarazi zaiola, horixe baita modu bakarra bermatzeko interesdunak aukera duela egotzen zaion arau-haustearen aurka defendatzeko, prozeduran egokituz jotzen dituen frogak aurkezteko eta bere eskubidearekin bat etorri dagokiona alegatzeko.





Horrez gain, konstituzio-jurisprudentziak behin eta berriro adierazi du ediktu bidezko jakinarazpena egitea azken erremedioa dela, ordezkoa eta salbuespenezkoa, eta, hura erabiltzeko, aldezturik, agortu egin behar direla jakinarazpenaren hartzailearekin harremanetan jartzeko eta, ahal dela, jakinarazitako egintza jasotzen duela ziurtatzeko modalitate egokiak, muturrera eramanda ohiko bideetatik pertsona hori non dagoen ikertzeko izapideak. Halaber, auzitegiaren ustez, jakinarazpena ediktu bidez egiteko erabakiak arrazoizko irizpideetan oinarritu behar du, eta ziur egon behar da, edo, gutxienez, uste sendoa izan behar da, alferrikakoa dela zitazioa egiteko ohiko baliabideak erabiltzea. Hortaz, auzitegiaren iritziz, administrazioari gutxienez eska dakizkiokeen eginbideen baitan sartzen da, ediktu-bidera jo aurretik, jakinarazpena beste erregistro publiko batzuetan ageri den helbidean egiten saiatzea.

Konstituzio Auzitegiaren irailaren 17ko 93/2018 Epaia jurisprudentzia horren orain dela gutxiko adierazgarrietako bat da (3. OJ).

Halaber, Konstituzio Auzitegiak, kexaren antzeko beste kasu bati buruzko irizpena eman du, hauxe adieraziz: *"... por lo que se refiere a supuestos de notificación edictal de personas jurídicas en procedimientos sancionadores en materia de tráfico, este Tribunal ya ha puesto de manifiesto que, incluso en los casos en que resulte frustrada la posibilidad de notificación personal en el domicilio que figure en el Registro de Vehículos, responde a la diligencia mínima exigible a la Administración sancionadora, antes de acudir a la vía edictal, el intentar la notificación en el domicilio social que aparezca inscrito en el Registro Mercantil..."* (Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 25eko 32/2008 Epaia, 3. OJ).

Auzitegi Gorenak, aipaturiko konstituzio-doktrinatik eta bere aurreko berezko jurisprudentziatik abiatuta, adierazi du, gainera, fede onaren printzipioak *"obliga a la Administración a que, aun cuando los interesados no hayan actuado con toda la diligencia debida en la comunicación del domicilio (bien porque no designaron un domicilio a efectos de notificaciones, bien porque los intentos de notificación en el indicado han sido infructuosos), antes de acudir a la notificación edictal o mediante comparecencia, intente la notificación en el domicilio idóneo, bien porque éste consta en el mismo expediente (...), bien porque su localización resulta extraordinariamente sencilla, normalmente acudiendo a oficinas o registros públicos, especialmente cuando se trata de la notificación de sanciones"*





*administrativas*" (Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 29ko 8569/2012 Epaia , 4. OJ).

6. Arartekok uste du, aipaturiko jurisprudentziaren arabera, gutxieneko eginbide galdagarriak enpresa kexagilearen helbidea aurkitzeko eskura zituen arrazoizko jarduketak egitera behartzen zuela Bermeoko Udala. Jarduketa horien artean zeuden, erakunde honen arabera, besteak beste, Merkataritza Erregistroan agertzen den helbidea egiaztatzea, are gehiago lehen jakinarazpen pertsonalak huts egin zuenean, bidali zen helbidean enpresa ezezaguna zelako.

Aurrekarietan adierazi denez, ez da jasotzen erakunde honetan egiaztatze hori egin zuenik. Ez da jasotzen ere enpresaren helbidea jakiteko ahalegina egin zenik, lehen jakinarazpenak arrazoi horregatik huts egin bazuen ere, ez eta hori egitea ezinezkoa izan zela adierazten duen justifikaziorik ere. Eta hori, aipaturiko konstituzio-doktrinaren arabera, gure ustez, ezinbestekoa da egindako ediktu-jakinarazpenak (halakorik egin bada) baliozkotzat hartzeko, eta, horiek, berriro errepikatzen da, ezin izan dira egiaztatu.

Horren aurrean, Udalak Arartekoari emandako informazioaren arabera, lehen jakinarazpenak huts egin zuen arren, bidali zen helbidean enpresa ezezaguna zelako, hurrengo jakinarazpenak helbide berdinerara bidali ziren.

Erakunde honen arabera, aipaturiko egiaztapena, hala ere, ediktu-jakinarazpena eskuratzeko beharrezko oinarria zen, aipatu den jurisprudentziaren arabera.

7. Hori dela eta, Arartekoak ezin du Udalak helarazi dion balorazioarekin bat egin, uste baitu jakinarazpenak behar bezala egin direla eta enpresak ez dituela jaso jakinarazpenak ez duelako bete Ibilgailuen Erregistroari helbide-aldaketa jakinarazteko betebeharra.

Enpresak, hain zuzen ere, ez zuen bete aipaturiko erregistroari helbide-aldaketa jakinarazteko legezko betebeharra, eta hori gaitzesteko modukoa izan daiteke, eta, jakina, horregatik huts egin zuen Udalak bidali zion lehenengo jakinarazpen pertsonalak; baina inguruabar horrek, aipaturiko jurisprudentziaren arabera, ez ditu baliozkotzat jotzen egindako jakinarazpenak, eta ez ditu konpentsatzen Udalaren jardunean hautemandako gabeziak.







8. Jakinarazpenaren lege- eta jurisprudentzia-eskakizunak bete gabe jakinarazitako egintzek ez dute ondorioz sortzen (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 39.2 artikulua), eta horrek, kasu honetan, beste bi ondorio juridiko dakartza.

Horrek esan nahi du, lehenik eta behin, enpresa kexagileari bere titulartasuneko ibilgailua gidatzen zuen pertsona identifikatzeko igorri zitzaizkion errekerimenduak ezin direla behar bezala gauzatu; izan ere, adierazi den bezala, enpresa zehatzeko erabili den arau-haustea eragin duen elementuetako bat da, eta hori barik ez dago arau-hausterik, eta, ondorioz, ezin da zehatu (Espainiako Konstituzioaren 25. art.).

Bestalde, bidegabe jakinarazitako zehapen-prozedurak hasteko erabakiek ere, arrazoi horregatik bakarrik, ez dute baliorik prozedurak hasteko. Baliogabetasuna prozeduraren ondorengo egintzetara ere transmititzen da, zehapena barne, eta horiek ez dute behar bezala jakinarazitako prozedura hasteko erabakiak ematen duen babes juridikorik (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 83.1 eta 86. artikulua, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 39.2 eta 48. artikuluekin lotuta).

9. Aipatu den jurisprudentziarekin bat etorritik, zehapen-prozedurak osatzen dituzten egintzen bidegabeko jakinarazpenak eragina izan zuen, halaber, erreklamazioa aurkeztu zuen enpresaren defendatzeko eskubide konstituzionalean (Espainiako Konstituzioko 24. art.), eragotzi egin ziolako zehapen-prozedurak izapidetzen ari zirela jakitea eta, horrekin batera, zehapenaren xede izan diren arau-hausteetatik defendatzea.

Oinarrizko eskubideen ustezko urraketekin emandako administrazio-egintzak erabat deusezak dira [urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.a) art., Espainiako Konstituzioaren 53. artikuluekin lotuta].

Hori dela eta, erakunde honek uste du enpresa kexagilearen defendatzeko oinarrizko eskubidea urratu zela haren aurka izapideturiko zehapen-prozedurak hasteko erabakiaren bidegabeko jakinarazpenaren ondorioz ez zuelako bete ibilgailua gidatzen zuen pertsona identifikatzeko betebeharra; eta ondorioz, nahitaez ulertu behar dela ezarri zitzaizkion zehapenak, arrazoi horregatik ere, legearen aldetik akastunak direla.





Ondorio bera ateratzen da baldin eta kontuan hartzen badira , kasu honetan bezala zehapen-legezkotasunerako eskubidea (Espainiako Konstituzioko 25. art.) urratu izanaren —enpresa zehatzeko arrazoia izan den arau-haustea eragin duen elementuetako bat ez egoteagatik— harira aldez aurretik egindako gogoetak, hau da, identifikazio-errekerimendua behar bezala jakinarazia izan dadila.

10. Zehapenen baliogabetasunak berarekin dakar hura betearazteko jarduketak baliogabeak izatea.
11. Arrazoitu den guztia oinarri hartuta, Arartekoak uste du Bermeoko Udalak ondoriorik gabe utzi behar dituela kexaren xede diren zehapenak eta horien betearazpena, ez baitu egiaztatu zehapenak eragin zituzten identifikazio-errekerimenduen jakinarazpenak eta arrazoi horrengatik izapideturiko zehapen-prozedurak osatzen dituzten egintzak guztiz bat zetozenik lege ezarritako errekerimenduekin, ez baitu bete Konstituzio Auzitegiak ediktu-jakinarazpena eskuratzeko eskatzen dituen zehaztapenak, eta hautemandako gabeziek zehatutako arau-hausteei eta defentsarako oinarritzko eskubideei eta zehatzeko legezkotasunari eragiten baitiete (Espainiako Konstituzioko 24. eta 25. artikulua).
12. Aurrekarietan adierazi den bezala, Udalak uste du identifikazio-errekerimendua eragin zituzten bi arau-haustek desberdinak direla, eta, horren arabera, ibilgailuak gutxienez bi kale gehiago igaro behar izan zituen arau-haustek atzeman ziren bi tokien artean.

Arartekoaren ustez, inguruabar horrek, hala ere, ezingo luke baztertu arau-hauste bakarra denik. Gure ustez, ondorio horietarako erabakigarria da zehaztea ea ibilgailuak jarraitu zuen ibilbidea derrigorrezkoa zen oinezkoentzako gunetik irten ahal izateko, gidariak ohartu ostean ezin zela sartu eremu horretan, enpresa kexagileak adierazi bezala.

Nolanahi ere, zehapenen baliogabetasunari buruz ateratako ondorioa ikusita, gure ustez, ez da beharrezkoa une honetan gaiaren inguruan sakontzea.

13. Administrazio publikoak behartuta daude interesdunek jartzen dituzten administrazio-errekurtsoak berariaz ebaztera eta errekurtsoei dagokien izapidetzea ematera, bizkortasun-, arintasun- eta eraginkortasun-printzipioen eta ofizioz bultzatzeko printzipioen arabera [urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21., 71. eta





112. artikulua eta hurrengoak, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren azaroaren 26ko 40/2015 Legearen 3.1 artikulua].

Prozedurazko zenbait izapide egoteko eta interesdunen eskaerei erantzun eraginkorra emateko bermea Konstituzioaren 103. artikulutik dator, eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak aitortzen duen administrazio onerako eskubidearen (41. art.) parte da.

Nolanahi ere, Gutunaren 51. artikuluan ezartzen dena gorabehera, eskubide horrek proiektio orokorra du barne-ordenamendu juridikoan, izan ere, Auzitegi Gorenak adierazi duen bezala, *“resulta difícil establecer y explicar un distinto nivel de enjuiciamiento, según se aplique o no el Derecho de la Unión Europea por los operadores en el ámbito interno* (Auzitegi Gorenaren 5342/2015 Epaia, azaroaren 20koa, 6. OJ).

Arartekoak askotan salatu du administrazio-isiltasuna kaltegarria dela; izan ere, isiltasun hori jasaten dutenak babesgabetasun-egoeran jartzen ditu, ez baitie uzten Administrazioak bere asmoari buruz duen borondatea zein den jakiten, ez eta borondate horren arrazoiak zein diren jakiten ere, eta ezjakintasun horrek ondorioak ditu balizko aurkaratzeari begira.

Isiltasunak, era berean, Administrazioaren funtzionamendu okerra dakar, eta Arartekoak, era berean, horren inguruan ohartarazi du.

Erakunde honek ez du jaso Bermeoko Udalak ebatzi duenik enpresak zigorren aurka eta hura betearazteko agindutako enbargoaren aurka jarritako errekurtsua. Adierazi den bezala, Udalak, era berean, ez dio eman Arartekoari horren inguruko informaziorik.

Azalpenik ezean, Arartekoak berriro eskatu behar dio Udalari bere legezko betebeharra bete dezala eta berariaz ebatz dezala aipaturiko errekurtsua, baldin eta, dirudienez, oraindik egin ez badu.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera, gomendio hau egiten diogu Bermeoko Udalari:





## **GOMENDIOA**

XXX eta XXX zehapen-prozeduretan enpresa kexagileari jarri zizkion zehapenak indarririk gabe utz ditzala, ez delako identifikatu bere titulartasuneko ibilgailua (matrikula: XXX) gidatzen zuen pertsona, trafikoko araudia hainbat aldiz urratzeagatik salatua izan zenean (XXX eta XXX zehapen-prozedurak). Era berean, indarririk gabe utz dezala zehapen horien betearazpena, ez baita egiaztatu aipaturiko prozeduretan egindako jakinarazpenak errespetatu beharreko eskakizunetara egokitzen zirenik.

Ebatz dezala enpresak egintza horien aurka jarritako errekurtsua, baldin eta, dirudienez, oraindik ez badu jarri.

